

## EDIZIOARI APLIKATUTAKO GAITASUN DIGITALAK, DAVINCI RESOLVE PROGRAMA ERABILIZ

### IKASKETA PLANA

Ikastaroaren izena	EDIZIOARI APLIKATUTAKO GAITASUN DIGITALAK, DAVINCI RESOLVE PROGRAMA ERABILIZ
Ikasturte akademikoa	2025-26
Kredituak	15
Irakaskuntza-orduak	50 ordu aurrez aurre, 20 ordu zuzendutako lanean eta 20 ordu lan autonomoan
Hasiera-data	2025/10/01
Amaiera-data	2025/10/31
Eskola-egunak eta ordutegia	Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara Ikastaro presentziala: Urriak 1-17 Lanak egiteko eta zuzentzeko: Urriak 20-31
Egoitza	Larrotxene Kultur Etxea
Helbidea	Intxaurrodno kalea 57, 2015 Donostia.
Irakaskuntza-hizkuntza	Euskera
Modalitatea	Aurrez aurrekoa
Softwarea	Davinci Resolve
Gehieneko ikasle kopurua	16
Partner-aren kontaktua	Iker Tolosa Email: <a href="mailto:iker_tolosa@donostia.eus">iker_tolosa@donostia.eus</a>  Unai Guerra Email: <a href="mailto:larrotxene_bideo@donostia.eus">larrotxene_bideo@donostia.eus</a>

#### Aurreikusitako dedikazio orduak: 375

Aurrez aurreko jarduerak	50
Tutorepeko lana	20
Lan autonomoa	20

#### Ikastaroaren deskribapena:

Ikus-entzunezko edizioko eta postprodukzioko prestakuntza praktikoa, lanbide-sektorean gehien erabiltzen den programetako batekin. Ikastaroaren ardatza edizioa da, baina prozesuaren fase guztiak jorratuko dira: materialaren antolaketatik hasi eta edizioraino, soinua, kolorearen zuzenketa eta azken esportazioa.

Aurrez aurrekoa Larrotxene Kultur Etxean, ikus-entzunezko prestakuntzan erreferentziazko zentroa, hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea duena.

Ez da beharrezkoa aldeztu aurretik bideo-edizioari buruzko ezagutzarik izatea.

## Ikastaroaren helburuak

Davinci Resolve bideo-edizio programan trebetasunak eskuratzea, ingurune profesioaletan erabiltzen diren teknikak aplikatuta.

- **Lan-fluxuak optimizatzea**, postprodukzioaren faseetan eraginkortasuna hobetzeko.
- Muntaia-, efektu-, kolore-, soinu- eta esportazio-**tresna aurreratuak aplikatzea**.
- Hainbat banaketa-plataformatarako (zinema, telebista, sareak, etab.) proiektuen eta **formatuen konfigurazioa menderatzea**.
- Ikus-entzunezko edizioaren eta **postprodukzioaren esparruan** laneratzeko funtsezko **gaitasunak eskuratzea**.
- **Ikasleen autonomia tekniko eta sortzailea sustatzea**, gainbegiraturutako material erreal eta praktikoekin lan eginez.

## Ikaskuntzaren emaitzak

### Ezagutzak

1. Davinci Resolve-n lan-fluxuaren oinarriak ezagutzea: irenstetik hasi eta azken esportaziora arte.
2. Editatzeko trebetasunak eskuratzea eta kolorea zuzentzeko, soinua nahasteko eta ikus-entzunezko formatuak kudeatzeko oinarriko printzipioak ulertzea.
3. Kodeken, edukiontzien, bereizmenen eta kolore-espazioen ezaugarri teknikoak identifikatzea.

### Trebetasunak

1. Bideoak eraginkortasunez editatzea, muntaia-teknikak, multikamera, efektuak eta trantsizioak erabilia.
2. Oinarriko kolore-zuzenketa aplikatzea eta hainbat ikus-estilotarako LUTekin lan egitea.
3. Proxieak eta beste teknika batzuk erabiliz proiektuaren errendimendua optimizatzea, bereizmen handiko arintasunez lan egin ahal izateko

### Kompetentziak

1. Ingurune profesional batean ikus-entzunezko edizioko proiektu oso bat modu autonomoan kudeatzea.
2. Edukien esportazioa plataformen betekizun teknikoetara egokitzea, hala nola sare sozialetara, telebistara edo zinema digitalera.
3. Errendimenduari, sinkronizazioarekin edo esportazio-kalitatearekin lotutako arazo teknikoak eraginkortasunez ebaztea.

## Aldez aurreko baldintzak

Ez da beharrezkoa aldez aurretik bideo-edizioari buruzko ezagutzarik izatea, baina komeni da ingurune informatikoak ezagutzea eta muntatzeko oinarriko kontzeptuak ulertzea.

## Ikasketa programa:

- 1.go atala: Lan-ingurunearen sarrera eta konfigurazioa

Materiala hartzea, proiektua antolatzea, lan-espazioa pertsonalizatzea eta artxibo-formatuak.

- 2. atala: Edizioa, audioa eta kolorea

Edit moduluko edizio-teknikak, proxieen erabilera, motion graphics, Fairlight modulurako sarrera eta kolorearen oinarrizko zuzenketa Color moduluan.

- 3. atala: Esportazio profesionala eta azken lan-fluxua

Codec-ak eta formatuak konfiguratzea, presetak sortzea, konpresioa, hainbat plataformatarako optimizazioa eta proiektuaren azken entrega (Deliveries).

### **Ikaskuntzak egiaztatzeko ebaluazioa**

- Etengabeko ebaluazioa ( % 50): Parte-hartze aktiboa eskoletan eta asteroko ariketa praktikoetan.

- Azken lana ( % 50): Irakasleak praktikak egiteko materiala emango die ikasleei. Ikasleek praktikak beren proiekturen batekin egin nahi badituzte, kasu bakoitza aztertuko da eta haren egokitasuna baloratuko da.

### **Oinarrizko informazio-iturriak**

DaVinci Resolve 20 Unleashed: The Complete Guide to Professional Video Editing, Audio Mastery, and Visual Effects Creation for Beginners and Experts, Zeke Farnsworth.